

Etxean kontu-kantari 4

Akerra ikusi dugu

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Abesti dibertigarri bat abestu dezakezue familian. Ea nork lortzen duen lehenengoan nahastu gabe abestea...

Akerra ikusi dugu baratzean jaten,
makila ikusi dugu aker hori jotzen.
Makilak akerra, akerrak artoa, akerra ken.
Baratzetik akerra ken, ken, ken, ken, ken.

Sua ikusi dugu makila hori erretzen,
ura ikusi dugu, su hori itzaltzen.
Urak sua, suak makila, makilak akerra, akerrak artoa, akerra ken.
Baratzetik akerra ken, ken, ken, ken, ken.

Behia ikusi dugu, ur hori edaten,
soka ikusi dugu, behi hori lotzen.
Sokak behia, behiak ura, urak sua,
suak makila, makilak akerra, akerrak artoa, akerra ken.
Baratzetik akerra ken, ken, ken, ken, ken.

Xagua ikusi dugu, soka hori etetzen,
katua ikusi dugu, xagua harrapatzen.
Katuak xagua, xaguak soka, sokak behia
behiak ura, urak sua, suak makila
makilak akerra, akerrak artoa, akerra ken.
Baratzetik akerra ken, ken, ken, ken, ken...

Xango-Mango

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Haurra magalean hartu eta trostan aritzeko jolasa da. Trostan ari garen bitartean abestia abestu eta bukaeran, belaunak ireki eta “erortzen” utziko dugu haurra.

Xango mango,
haurra nongo?
Ona bada etxerako,
txarra bada putzurako.

Zapi zuri honekin

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Soka saltoan aritzeko kantua dugu honakoa. Zapi bat eskuan hartu eta abestiaren aginduak betetzea proposatzen da: orain alde batera, gero bestera, lurrera, airera...

Zapi zuri honekin,
jolasten gara.
Orain alde batera,
gero bestera.
Zapi zuria lurrera,
zapi zuria airera.
Orain alde batera,
gero bestera.

Behin joan nintzen azokara

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Borobil polit bat egin eta denok batera kantuan aritzea proposatzen dizuegu. Edota antzezpen bat festa egun batean egiteko...

Ezetz nahastu gabe esan!

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen txakur bat.
Txakurrak uau! Uau!
Nik xaxa berari,
eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen txistu bat.
Txistuak fli, fli!
Txakurrak uau, uau!
Nik xaxa berari,
eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen txerri bat.
Txerriak kurrin, kurrin!
Txistuak fli, fli!
Txakurrak uau, uau!
Nik xaxa berari,
eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen katu bat.
Katuak miau, miau!
Txerriak kurrin, kurrin!
Txistuak fli, fli!
Txakurrak uau, uau!
Nik xaxa berari, eraman nion amari.

Zapatari txikiren ipuina

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Zapatari txiki pobrea bezain argia zen, jakin nahi al duzue nola aberastu zen?